



ZIZUR NAGUSIA
KULTUR PROGRAMA
MAIATZA-EKAINA 2024



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



KULTURA, Zizur Nagusia
CULTURA, Zizur Mayor



Jarrai gaitzazu ZizurArten:
www.zizurmajorcultura.es/eu



EGUTEGIA



ANTZERKIA



HAUR
ZINEMA



MUSIKA



HAUR
ANTZERKIA



ZINEMA



IKUSKIZUN
DIZIPLINA ANITZA

MAIATZA

	1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA

				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

EGUNA

- 04 **ANTZERKIA** "El nadador de aguas abiertas" K PRODUCCIONES
- 05 **HAUR ZINEMA** "Elemental"
- 11 **MUSIKA** "More than Jazz" ZUGARDI BIG BAND
- 12 **HAUR ANTZERKIA** "Un traje nuevo para el emperador" LA PERA LLIMONERA
- 16 **ZINEFORUMA** "Rara"
- 17 **ANTZERKIA** "Monólogos a 2 bandas. Leire Ruiz, Andoni Agirregomezkorta" TTIPIA KULTURA
- 24 **MUSIKA** ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA ETA LEIRE REDÍN
- 26 **ANTZERKIA** "Un jardín de lindas flores" ELORTZIBARKO ANTZERKI TAILERRA
- 31 **DIZIPLINA ANITZEKO IKUSKIZUNA** "Nadie está lejos" ADOS TEATROA

EGUNA

- 01 **ANTZERKIA** "Olvido Flores" ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN
- 07 **MUSIKA** "Bilakatzen" ACHE PA TI
- 14 **DIZIPLINA ANITZEKO IKUSKIZUNA** "Zizurko bargastak"



**AHAL DUZUN GUZTIETAN,
EROSI ZURE SARRERAK
INTERNET BIDEZ**



**ESKATU AURIKULARRA
EDO BEGIZTA MAGNETIKOAK
ATEZAINDEGIAN**

Antolatzaileak:



Diru-laguntzaileak:





BILATU PROMOZIOAK!

ZizurArte

15€ **BONUA HELDUA**

"El nadador de aguas abiertas"
K PRODUCCIONES
2024/05/04



"Monólogos a 2 bandas"
LEIRE RUIZ ETA ANDONI
AGIRREGOMEZKORTA
2024/05/17

5€ **BONUA HAURRA**

"Elemental"
ANIMAZIO-FILMA
2024/05/05



"Un traje nuevo para el emperador"
LA PERA LLIMONERA
2024/05/12



PREZIOAK MURRIZTU DITUGU!

GAZTE ETA IKASLE TXARTELAK (12 eta 30 urte bitartekoentzat):

4 euroko edo 4 eurotik gorako sarreretan %50eko murrizketa. Ez da aplikatuko haur ikuskizunetan.

Betebeharrak: NANA eta txartela eguneraturik aurkeztea.

LANGABETUAK: Doako sarrera bat haur zinema emanaldietara haurra laguntzera joaten den helduarentzat.

Betebeharrak: NANA eta enplegua eskatzeko txartel eguneratua aurkeztea.

ALDEZ AURREKO SALMENTA

Apirilaren 23ko (asteartea) 9:00etatik aurrera.

1. TXARTELDEGIA

- Astelehenetik ostiralera 09:00 - 21:00
- Larunbatetan 10:00 - 14:00
17:00 - 21:00
- Ilande eta jaiegunetan 12:00 - 14:00
- Ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago.

2. INTERNET

www.zizurmayorcultura.es/eu
Egiaztatu zure erosketa eta ez ahaztu sarrera.
Gogoan izan, kosturik gabe



OINARRIZKO ARAUAK

Puntueltasuna: Behin ikuskizuna hasita, inork ez du sartzerik izanen aretoan.

Seinale akustikoak:

Deskonektatu beharko dira.

Grabazioak eta argazkiak:

Debekatuak daude.

Janaria eta edaria: Debekatuak daude.

Dirua itzultzea: Ikuskizuna bertan behera uzten denean soilik.

Haur ikuskizunak: Adin gomendatura doitzea aholkatzen da.

- 3 urtetik behekoek: Ikuskizuna adin horretarako denean baizik ez dute bertaratzerik izanen.
- 3tik 7 urtera: heldu batek lagunduta joan beharko dute.

Larunbata

4**ANTZERKIA****El nadador de aguas abiertas**

K PRODUCCIONES

20:00
12€
80 minGOBIERNO
DE ESPAÑAMINISTERIO
DE EDUCACIÓN, CULTURA
Y DEPORTE**inaem**
Instituto Nacional de
Artes Escénicas**PLATEA**

Nilo aktore kaskarra da, eta jadanik ez diote lanik ematen. Emazteak utzi egin du eta bera pentsamendu autosuntsitzailen kiribilean murgildu da. Familiako trauma bat ezkututzen duen Walrus igerilari adituari esker, Nilok igeri egiten ikasiko du berrogeita zortzi urterekin, eta bide horretan, bere bizitzako ikasgairik garrantzitsuena ere

jasoko du. Kontakizun liluragarria da. Itsasoak "halabeharrez" korapilatutako bi bizitza eta, itsasertzean, adiskidetasuna, bien salbabide. Gizonezkoen arteko adiskidantza istorio zoragarria da, fikzioak kontaktu ohi dizkigunez oso bertzelakoa: samurra, maitekorra eta enpatikoa.

Ilgandea

5**HAUR ZINEMA**

Gaztelaniaz

Elemental18:00
3€
101 min

Candela izeneko neska Ciudad Elemento-koa da; bertan elkarrekin bizi dira suz, urez, lurrez eta airez egindako bizilagunak. Neska nortasun handiko gazte bizkor eta buruargia da eta Nilo mutil sentibera, adeitsu eta lasaiaren laguna. Adiskidetasun horrek bizi diren munduarekiko ikuspegia aldaraziko dio.

Larunbata

11



MUSIKA

More than Jazz

ZUGARDI BIG BAND

20:00
10€



“More Than Jazz” kontzertuan Zugardi Big Band taldearen swing, jazz eta soul klasikoak entzuten ditugu. Nafarroan ari

den bandarik handiena da (42 musikari) eta Zizur Nagusian sortu zen, 2017an. Oso egitarau berezia prestatu dute zazpigarren urtemuga ospatzeko: lehen zatia XX. mendeko musikagile ezinbestekoei eskainia, hala nola Glenn Miller, Red Garland eta beste batzuei, bai eta latin jazzaren eta soinu-banden lan berriei

ere. Bigarren zatian, hiru bokalista bikain arituko dira: **Ana Zabalza**, **Sergio Eslava** eta **Raúl Martains**. Musika-zuzendaria **Wifredo Soler** da.

Igandea

12



HAUR ANTZERKIA

Gaztelaniaz



Un traje nuevo para el emperador

LA PERA LLIMONERA

18:00
4€
60 min

Adin gomendatua:
5 utetik gora



FETEN
2023 SARIA
DRAMATURGIA
ONENARI

Armairua bete-betea badu ere, Enperadore Jauna ez dago sekulan kontent jantzen dituen jantziekin. Enperadorea poz-pozik utzi nahirik, haren aholkulariak dei egin die Inperioko jostun guztiei beren diseinuak sari eder baten truk aurkeztu ditzaten.

Bestelako jantzia izan beharko du, paregabea, zoragarria eta miresgarria.

Albistearen talentu handiko bi jostun atzeritarrengana ere iritsi da, biak ere gauza baitira inoizko ezaugarri apartekoenak dituzten jantziak egiteko.

Osteguna

16



ZINEFORUMA

Rara

PEPA SAN MARTÍN

19:00

Sarrera librea, aurrez gonbidapena hartuta
93 min



Antolatzailera:



COMISIÓN DE IGUALDAD
AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR
ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN
BERDINTASUNERAKO BATZORDEA

Sarak ikasten du, mutil bat du gustuko, lagunekin joan nahi du festa egitera eta ahizpa Catarekin egotea gustatzen zaio. Bizitza, ordea, errotik aldatuko zaio, aitarekin amarekiko bizitzaz hitz egiten duenean. Nerabe kasketak ondorio aunitz izanen ditu. Txileko

epaile andere baten kasuan inspiratua da, alaben gaineko jagoletza kendu baitzioten emakume batekin bizi zelako.

Ondorengo solasaldia Maria Castejónekin. Historialaria, irakaslea, zineman aditua eta idazlea.

Ostirala

17



ANTZERKIA

Monólogos a 2 bandas. Leire Ruiz eta Andoni Agirregomezkorta

TTIPIA KULTURA

20:00

8€

70 min



Andoni eta Leire beren gauzaz mintzo dira. Andoni, adibidez, euskaldunei egotzitako topiko guztiak desmuntatzea erabaki du. Ez dela ligatzen, etengabe ari duela euria, euskaldunak 'hostia' hitzarekin jaiotzen direla ahoan. Leire, ordea, autonomia da, euskaldun berria, influentzerra eta sareetan monetizatutako mutiko baten ama. Bere ametsa egunero follower gehiago izatea da.

MAIATZA

Ostirala

24



MUSIKA

ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA

20:00
2€



Kontzertua Leire Redínekin elkarlanean.

Igandea

26



ANTZERKIA

Un jardín de lindas flores

ELORTZIBARKO ANTZERKI TAILERRA

19:00
4€
80 min



Bizitzak zartakoak ematen dizkigunean, bi aukera ditugu: etsitzea edo aurrera jotzea. Eta, hain zuzen ere, azken hori egitea erabaki zuen emakume talde batek (lore ederrez osaturiko sorta); izan ere, talentu handiz (nahiz eta hori publikoak esanen duen) eta ahalegin handiz (horren fede ematen dute antzezleek) saiatzen dira lan proiektu bat aurrera ateratzen, proiektu harrigarria zinez.

Ostirala

31



DIZIPLINA ANITZEKO
IKUSKIZUNA

Nadie está lejos

ADOS TEATROA

19:30 performancea. Kultur Etxeko plaza
20:00 dokumentala + topaketa talde
artistikoarekin. Antzokia
Sarrera librea



Ikuskizuna egiten da bai arte eszeniko eta plastikoetako profesionalekin batera, bai pobrezian, etxegabezia edota zaugarritasun ekonomikoan dauden pertsonekin elkarlanean. Gizartean dagoen aporofobiari buruzko gogoeta da. Aporofobia terminoa Adela Cortina filosofoak sortua da, pobreenganako arbuioa, beldurra edo gorrotoa adierazteko, eta xenofobia, arrazakeria eta beste gaitz batzuen sorburuan dago. Inor ez dago pobreziatik edo bere burua kalean ikustetik salbu. Nahikoa da kontrako zirkunstantzia batzuk bata bestearen atzetik kateatzea.

Kultur Etxeko plazan emanen den **performancean**, bi lan plastiko eginen dira zuzenean, dramaturgia garatzen den bitartean: artista plastiko batek horma-irudi bat onduko baitu, eta ebanista batek, berriz, aulkiak eginen ditu, hondakinak erabiliz. Antzokian, 45 minutuko **dokumental** bat emanen da, konpainiak berak ekoiztua, Iruñeko PARIS 365 jangela solidarioaren erabiltzaile talde baten esperientzia jasotzen duena.

Larunbata

1



ANTZERKIA

Olvido Flores

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN

20:00

6€

30 min + solasaldia

Edukiera murriztua



Anastasini Zirkuaen istorioa. Troupe horrek Lodosan izan zuen amaiera tragikoa, 1936ko uztailean. Gertakari haiek bizi izan zituztenen lekukotasunak ekarriko dizkigu, memoriari egin nahi baitio gorazarre, bai eta inork loreak eraman ez zizkien

Objektuen hizkuntzaren bidez, narratzaileak edertasun-istorio mikatza kontatuko digu, poesia, zirku eta gerra kontakizuna, hots,

pertsona horiei ere.

Topaketa talde artistikoarekin, ikuskizunaren ondoren.

Ostirala

7



MUSIKA

Bilakatzen

ACHE PA TI

20:00

6€



Ikuskizun hau taldearen "Bilakatzen" bigarren diskoaren grabaziorako lanaren emaitza da. Bestelako soinuak eta estiloak ikertu dituzte, hala nola popa eta Word Music-ak, moldaketekin eta bestelako instrumentuekin esperimentatzeaz gainera.

Ache pa ti-k hogeit hamar urte egin ditu dagoeneko bidean, eta haren ezaugarriak jazz latino eta sustrai afrika-kubatarreko musika dira, Euskal Herriko folkloarekin duten lotura atzendu gabe.

Ostirala

14



DIZIPLINA ANITZEKO
IKUSKIZUNA
Euskaraz

Zizurko bargastak

20:00
5€
80 min



Bargastak emakume lotsagabe eta ausartak dira. "Zizurko bargastak", hortaz, gure herriko emakume ausartendako gonbita da, artista gonbidatuekin bat egin dezaten eta anfiteatroaren plaza publikoa har dezaten.

"Mariokerrak. Nola esan/izan bollera euskaraz" haritzat harturik, Garazi San Martin inprobisatzaileak artistak eta herriko kolektiboak zuzenduko ditu, emanaldiaren fokua arloz arlo eramanik; batzuetan, norbanakoen emanaldiak, bestetan bizpahiru diziiplina fusionatuta eta uztartuta. Saioa Alkaiza eta Maddi Ane Txoperena bertsolariak, Ilunabarra txistulari taldea, Birariak dantza taldea, Zizurko Joaldunak eta artista grafiko bat arituko dira. Ekimena hiru udal

programaziotan dago sarturik: Kulturakoan, barnealdeko denboraldia ixteko; Zizurren Euskaraz programan, helduendako beste kale ikuskizun batzuek lagundurik eta, era berean, Harrotasunaren egunerako proposamen aberasgarrian, sexu askatasun eta aniztasunak aldarrikatze aldera.

Ikuskizuna elkarlanean antolatu dute Zizur Nagusiko Berdintasun, Kultura eta Euskara zerbitzuek herriko taldeekin.